

BERGARAKO SANTA MARINAKO KANPAI-SOINUA

MIRENTXU GOÑI AUZMENDI

Bergaran bi parrokia daude; horietako bat du gu Santa Marina Oxirondokoa.

Lan honetan Santa Marinako Elizaren kanpai-soinua, eta eratu eta erabili dudan galdera-zerrenda azaltzen ditut.

Lehenbiziko eliza 1542-1584 bitartean egin zan. Haunditua eta orain ikusten dugun bezela, bere dorrearekin, XVIII.garren mendekoa dugu.

Euskal gotiko erakoa, beraz.

Santa Mañako dorreak zortzi idekidura ditu, behean lau haundi eta lau txiki gorago. Danera zazpi kanpai, bueltakoak bost eta geldikoak bi.

Oxirondo aldera: behean, errepika-kanpaia, geldikoa; goian, hutsik.

Zubieta aldera: behean, meza-kanpaia, bueltakoa; goian, nobenakoa, bueltakoa.

Barrenkale aldera: behean, txiki biak, ezkerrekoa eta eskubikoa, bueltakoak.

Katabixa aldera: behean, agoniakoa, geldikoa; goian, hutsik.

Kanpai horietan hiru zati bereizi ditezke: egurrezko uztarria, kanpaia bera, bronzekoa, eta mingaña, burdinazkoa.

Kanpian neurriak hauek dira:

Nobenakoak,	aldetik alde	82 zentimetro	eta	goitik	behera	71 zentimetro.
Doloretakoak,	»	»	90	»	»	76 »
Txiki biak:						
Ezkerrekoak,	»	»	62	»	»	58 »
Eskubikoak,	»	»	66	»	»	53 »
Meza-kanpaiak,	»	»	50	»	»	50 »
Errepikeak,	»	»	160	»	»	116 »
Agoniakoak,	»	»	155	»	»	115 »

Kanpaiak baino gorago, erlojua dago dorreari kanpotik itsatsita bezela hiru aldetara, Barrenkale, Zubieta eta Oxirondora: Katabia aldera, berriez, hutsik.

Erlojuak ere ba ditu bi kanpai, bat bestea baino txikiagoa.

Haundienak, orduak eta erdiak jotzen ditu; txikiak, orduaren aurretik lau kanpai, laurdenetan bat, erdietan bi eta hirulaurdenetan hiru.

Hiru aldi bereizi litezke Santa Mañako kanpai-soinuari dagokionez:

— Lehendik, 1958. urterarte eskuz jotzen ziren kanpaiak.

— 1958. urtean bueltako kanpai-jotzea argi-indarraren bidez ipini zen, sakristian botoiak saketuz jotzeko.

— 1977. urtetik geldikoak, albakoa, hamabie-



Santa Marinako Eliza (Bergara).

takoa, anjelusa eta kedea jotzeko erlojuak agintzen die berariz.

Aldi horietako bakoitzeko kanpai-soinuak azalduko bitut lan honetan, noiz, nola eta zein egunetan jotzen ziren.

Aintxinatik, 1958. urterarteko kanpaiak jotzeko era:

«Albakua: goizeko zazpiretan jotzen zan, iru iruko eta zazpi kanpai segidan, Errepikakuakin.

Amabittakua: Eguardiko 12tan, iru iruko eta amabi kanpai segidan, Errepikakuakin; negu partian jotzen zien.

Maiatzeko Santa Krutz egunian asi eta Errosario egunian akabauta «Letxuga-kanpaia» jotzen zan, amabixetan; lenengo Errepika-kanpaiakin, tum, tum-tum; tum, tum-tum; tum, tum-tum; tum. Ezkerreko kanpai txikixakin erantzun, tim, tim-tim; tim, tim-tim; tim, tim-tim; tim. Bata eta bestia iru bider eta akabatzeko Errepika ta Agonixakua eta Aingeru-kanpaiak, danak batera.

Anjelusa: Errosario-akabera 6terdiak ero 7tan jotzen zan; iru banako Errepika-kanpaiakin, 9 kanpai segidan, Errepikakuakin.

Kedia: Gabeko 9tan, 9 banako Errepika-kanpaiakin; 30 segidan, eta beste iru banako Agonixako kanpaiakin.

Esaerak dionez 33 kanpai orrek Jesukriston urtiak die.

Kedia jo ta gero, eta goizeko albako kanpaia bittartian ez zan kanpairik jotzen; su-kanpaia bakarrik jo zeiken.

Elizakuena: Errepika-kanpaiakin bat, Angonixako-kanpaiakin bat eta Errepika-kanpaiakin bat, iru aldiz jotzen zan. Abadiak Jauna eskuetan zeroian bizkarzapiakin tapauta, aurrian sakristaua farolakin, argixa piztuta, eta txilina jotzen, juaten zien elizakuak emotera.

Agonixakua: Norbait iltzen zanian jotzen zan; Agonixako-kanpaia, geldikua.

edo

Il-kanpaia: Ildakua emakumia bazan, sei banako. Gizakumia bazan, iru iruko.

Aingeru-kanpaia: Txiki bixak aldizka jotzen zien.

Entierro-kanpaia: Entierro egunian, Amabittakuak jo ondoren Agonixakua eta Errepikia aldizka, 10 bat minutu jotzen zien. Entierro ordua baño ordu laren lenau, era berian.

Mezakua: Meza-kanpaia, astegunian meza ordua baño ordu laren lenau jotzen zan, minutu bat inguru.

Domeketan eta jaixetan meza aurretik iru aldiz



Santa Marinako dorrea.

joten zan; 15 minutu, 8 minutu aurrez eta ordu-orduan.

Meza-nausixetan: Txiki bixak meza aurretik jotzen, ordu-erdi lenau eta orduan.

Egun aundiko meza-nausixetan: Bueltako kanpai danak ordu-erdi lenau eta orduan.

Jai aundixen bezperatan: amabittakuak jo ondoren, Bueltako kanpai danak.

Bizperak: Txiki bixak batera eta jai aundixetan Bueltako danak, baita Agonixakua eta Errepikia be.

Nobenakua: Doloretako nobenan eta Doloretako zazpi naigabetan, Bueltakua (kanpai aundixa be esaten jako).

Anima-kanpaia: Anima egunian Errepika eta Agonixakua jotzen, amabixetan asi ta illuntzeko 8rak arte gelditzeke. Gerraostian atsaldeko 5tan asi eta 8rak arte jotzen zan, minutu bakoitzian bi aldiz edo.

Su-kanpaia: Sei banako Errepikiakin eta sei banako Agonixakuakin, illaran, kantsau arte; su-kanpaia edozein ordutan, bai egunez bai gabaz jotzen zan.

Ode-kanpaia: Lenengo San Mieleko ermitiak jotzen zeban Agonixa-kanpaia, ta gero bi parrokixak; Agonixakuakin 9 kanpai banako.

San Marzial egunian: Goizeko 7tan San Marzial ermitara letania ateratzen da, abadia estolia-kin ta sobrepellizakin, eta aurretik gizon bat gurutzia daroiala. Irten baño ordu laren lenau, Agonixakua eta Errepikia bixak batera jotzen dira, iru bat minutu».

1958garrenean hasi eta harez gero irauten duten kanpai-jotzeak honako hauek dira:

Albakoa, eta Amabietako kanpaia era eta ordu beretan jotzen dira.

Anjelusa era berean, bainan gaueko 8tan.

Aramaitakua (leno Kedia deitzen zitzaion) era eta ordu berean jotzen da.

Elizakoa, ez da jotzen.


Agoniakoa, era berean norbait hiltzen denean.

Aingeru-kanpaia, txiki biak batean (lehen aldizkia).

Entierro-kanpaia, ordu eta era berean.

Meza-kanpaia, Meza-nagusikoa eta Egun aundiko Meza-nagusitakoa ordu eta era berdinetan jotzen dira.

Jai aundien bezperatan, amabietan Bueltako kanpai danak jotzen dira; horrelako jai haundiak gutxiago dira, Elizak gutxitu egin dituelako.



Santa Marinako kanpantorrearen lau aldeak.

Oraingoak hauek dira: Errege bezpera, San Jose bezpera, Sapatu Santua, Mendekoste bezpera, Korpus bezpera, Santa Marina bezpera, San Inazio bezpera, Abuztuko Ama Birjiña bezpera, Domu Santu bezpera, Konzeziño bezpera eta Natibitate bezpera.

Bezperak eta Doloretako Nobenakoa, bezperak eta Ama Birjiña Doloretakoaren bederatziruena kendu zirenetik ez dira jotzen.

Anima-kanpaia, anima-egunean arratsaldeko kanpai-jotzea egiten da.

Su-kanpaia eta hode-kanpaia galdu egin dira.

San Marzial eguneko letaniakoa goizeko 7tan jotzen da.

Esan bezela 1977garrenetik geldikoak, albakoa, amabietakoa, anjelusa eta aramaitakoa erlojuak eragin da jotzen dira.

Letxuga-kanpaia azkeneko urte hauetan Maiatzako Santa Krutz egunian Natalio Juaristik eskuz jotzen du.

Juan Idigoras eta Natalio Juaristi izan ditut berriemaile eta kanpai-jotzaile, eta Miguel Okina marrazki-egile. Nere eskerrona.

GALDERA - ZERRENDA

1. Eliza eta Dorrea egin zireneko garaiak
2. Dorreko irikiak
3. Kanpaiak zenbait diren eta non tinkatuta dauden
4. Kanpaien neurriak, urtea, burdinolaren non-goia eta ola-jabearen izena
5. Zer metalez eginda dauden
6. Kanpai bakoitza jotzeko era
7. Lehen eta orain jotzeko erak
8. Albakoa
9. Amabietakoa
10. Anjelusa
11. Aramaitakoa (Abemaritakoa)
12. Elizakoen-kanpaia
13. Agoniakoa, gizezkoena eta emakumezkoena
14. Il-kanpaia
15. Entierrokoa
16. Aingeru-kanpaia
17. Mezakoa; astegunetan, igandetan
18. Meza nagusikoa
19. Egun aunditako Meza nagusietakoa
20. Jai aundien bezperatan
21. Zeintzuk dira jai horiek?
22. Bezperak
23. Anima-kanpaia
24. Su-kanpaia
25. Hodei-kanpaia
26. Prozesio-kanpaia
27. Konjuro-kanpaia
28. Rogatiba-kanpaia
29. Bombardeo-kanpaia
30. Nork jotzen ditu eta nork jo izan ditu kanpaiak?

Resumen**Toques de campanas de Santa Marina de Bergara**

La primitiva iglesia de Santa Marina de Oxirondo de Bergara se construyó entre 1542 y 1584. Su ampliación y la torre tal como ha llegado hasta nuestros días datan del siglo XVIII; corresponde al llamado gótico vasco.

La torre tiene ocho aberturas; cuatro grandes abajo, y encima otras cuatro más pequeñas. En total siete campanas, cinco giratorias y dos fijas.

El reloj tiene también dos campanas, una que da las horas y las medias, y la otra más pequeña los cuartos, y los trescuartos, y anuncia las medias y las horas.

Enumero las distintas campanas, su ubicación y medidas.

Distinguimos tres etapas:

- La primera hasta 1958, en que las campanas se tañían a mano por el Sacristán.
- En 1958 se electrificaron las campanas, y el cuadro de mandos se encuentra en la sacristía y las toca el Sacristán.
- Y en 1977 el tañido de las campanas fijas (alba, mediodía, anjelus y queda) se conectaron con la maquinaria del reloj.

Se transcriben los diferentes toques y horarios, que están recogidos en cinta magnetofónica.

Actualmente son los sacerdotes o los miembros de la Junta Parroquial los que manejan el cuadro de mandos en la sacristía.

Bergara 1980eko Urriak 15.